

# “FRANCISCO ESCUDERO” NAZIOARTEKO III KONPOSIZIO SARIKETA


Akordeoi batentzat edo Kamara Musikako, akordeoia barne delarik, obrak

## Antolatzaile:



**HAUSPOZ**, Euskal Herriko Akordeoi Elkarte  
Apdo. 49  
20120 Hernani, Gipuzkoa  
Tel. 606 140 352 / 34 943 331 931  
info@hauspoz.org

## Babesle:



**HAUSPOZ**, Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak “Francisco Escudero” Nazioarteko Konposizio Sariaketaren hirugarren edizioaren deialdia egiten du. Sari banaketa Zarautzen (Gipuzkoa) egingo da, 2010ko Irailak 18, larunbatean.

## HELBURUAK

- Sariaketaren helburu nagusia, akordeoiko obra berrien sorkuntza indartzea da, akordeoi batez nahiz kamara musikaz.

## ESPARRUAK

- Akordeoi bakarrarentzat edo Kamara Musikarako sortutako obrak, maila berean. Iraupena, gehienez, 10 minutukoa izango da. Kamara Musikan, gehienez lau instrumentuz osaturiko obrak izan behar dute (gutxienez akordeoi bat barne).

## OINARRIAK

- Partaideak edozein adin eta jatorrikoak izan daitezke.
- 2006eko urtarrila baino lehen sortutako obrak ez dira onartuko.
- Aurkeztutako obrak, aurretik sortutako enkarguak izan daitezke, baina edozein kasutan ere, estreinatu gabeak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Aurretik sarituak edota argirituak izan badira ere ez dira onartuak izango.
- Zati elektroakustikorik aurkeztuz gero, honako formatu hauetako batean izan behar du: Audio cd (ez wav), 44.1 KHz eta 16 bit-etan; Mp3. Cd-an daudenak, posta ziurtatuz bidaliko dira, partiturarekin batera, eta Mp3-an daudenak [info@hauspoz.org](mailto:info@hauspoz.org)-era.
- Hauspozek, saritutako obrak argitaratuko ditu. Epaimahaikideek hala baderitzote, saritu gabeak ere argitaratu ahal izango ditu Elkarteak.

- Hauspozek, obra sarituak Arrasateko lehiaketetan erabiltzeko ahalmena izango du. Halaber, obren grabaketa, produkzio edo banaketa egin ahal izango du, konposatzaileek, horren truke, legeek adierazten duten irabaziak jasotzeko eskubidea izango dutelarik, eta ez besterik.
- Konposatzaileek obraren **hiru** kopia bidaliko dituzte, bertan bere izenik (edo bere nortasuna azal dezakeen zeinurik) ipini gabe, kartazal batetan sartuta. Kartazal honetan goitizen edo kode bat idatziko da. Honekin batera, goitizen edo kode berbera duen beste kartazal batetan sartuta, obraren izenburua, egilearen datuak, telefono zenbaki bat eta helbide elektronikoa bidaliko dira.
- Izenemate tasa: 30 € Hauspozeko bazkideentzat, 10 €
- Obrak aurkezteko azken eguna **Irailak 10** izango da.
- Antolatzaileek, epaimahaikideek hala adostuz gero, sariak hutsik utz ditzakete. Kasu horretan, eta epaimahaikideak ados egonez gero, saria pertsona edo elkarte bati eman ahal izango litzaioke, bere lana edo ibilbidea kontutan hartuta.
- Sarietan parte hartzeak, oinarrien onarpena dakar berarekin.

## EPAIMAHAIA

- Epaimahaia konposatzaile ospetsu eta adituez osaturik egongo da.
- Epaimahaikideen erabakiak apelaezinak izango dira.
- Epaimahaiaren ondoan, Miren iñarga, akordeoi pedagogian aditua, boto eskubide gabeko mahaikide bezala egongo da
- Iñaki Alberdi izango da lehiaketako zuzendari artistikoa.

## SARIAK

- Saria, 1500 eurotako diru-saria da eta obraren edizioa izango da.